

## **DONOSTIA / San Telmok, Urgullek eta Cristina Eneak jarduera bereziak dituzte Pazko astean**

### **Gaztetxoak oporretan daudela aprobetxatuta tailerrak eta jokoak izango dira han eta hemen**

DONOSTIA. Pazko aste honetan oporretan jarraitzen dute gaztetxoek eta haientzako jarduera bereziak antolatu dituzte han eta hemen. Donostian, esaterako, San Telmo museoak eta Cristina Enea Fundazioak hainbat joko eta tailer prestatu dituzte, haien egoitzetan eta baita Urgull mendian ere. Hala, Urgulleko Historiaren Etxean, esaterako, ostiralean (17.00etan) eta igandean (12.00etan) 1813an gertatutakoaren inguruko tailerrak izango dituzte eta garai hartako hiriaren maketa bat ere egingo dute bertaratzen direnek. Damen Bateria dagoen liburutegian ostegunean (17.00etan) ipuin kontaketa izango da eta Gobernadorearen Bateria dagoen eta Cristina Enea Fundazioak kudeatzen duen Natur Txokoa, aldiz, altxorraren bila arituko dira gaur eta Txanogorritxuren bisita izango dute bihar (bi jarduerak 17.00etan izango dira). Cristina Enea parkean, ordea, goizez izango dira tailerrak gaurtik ostiralera arte (11.00etan). Ipuinak entzungo dituzte gaztetxoek, xomorroak ezagutuko dituzte, Margari zientzialariren bisita jasoko dute eta Dukearen misterioa deskubritzen saiatuko dira, besteak beste. Jarduera hauek guztiak doan dira.

san telmo Bestalde, San Telmo museoak bi tailer prestatu ditu haurrentzat eta familientzat. Euskaraz izango dira eta Erdi Aroa izango dute oinarri, museoaren erakusketa iraunkorrean gai hori jorratzen denez. Hala, bihar eta ostiralean (11.00etan) Oka jokoan arituko dira haurrak. Gaur eta ostegunean, berriz, idazketa tailerra izango da gaztetxoentzat eta bi kasuetan izena ematea beharrezkoa da. Idazketa tailerra familiek ere egin dezakete larunbat arratsaldean (17.00etan) eta kasu honetan sarrera erosi beharko dute.

### **LAS CLAVES**

- . Urgulleko historiaren etxea. Ostiralean 17.00etan Maketa historikoa eta igandean, 12.00etan, 1813-2013 Oroimena jokoak. Doan.
- . Urgulleko liburutegia. Ostegunean, 17.00etan, Pazko arraultza ipuin kontaketa. Doan.
- . Urgulleko Natur Txokoa. Gaur, 17.00etan, Altxorraren bila eta bihar, 17.00etan, Txanogorritxu Urgullen. Doan.
- . Cristina Enea parkea. Gaur, 11.00etan, Bazen behin ipuin kontaketa; bihar, 11.00etan, Xomorroak tailerra; ostegunean, 11.00etan, Margari zientzialari; ostiralean, 11.00etan, Dukearen misterioa. Doan.
- . San Telmo museoak. Gaur eta ostegunean, 11.00etan, idazketa tailerra haurrentzat; bihar eta ostiralean, 11.00etan, Oka jokoak haurrentzat; larunbatean, 17.00etan, idazketa tailerra familientzat. Guztiak Erdi Aroaren inguruan. Haurrek izena eman behar dute eta familiek, sarrera erosi.